



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE
DE ARANGUREN

 Plan de Recuperación
Transformación
y Resiliencia



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

I. ERANSKINA.- IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Aranguren Ibarreko Udalak, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsen erakunde onuraduna den aldetik, Iruzurraren aurkako Planarekin batera, honako hau onartu du osoko bilkuran,

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”

Aranguren Ibarreko Udala erakunde irekia, gardena, irisgarria, osoa eta herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen eta politika publikoen etengabeko hobekuntzarekin konprometitua da, mundu guztiarentzat etorkizunerako eta aurrerapen sozial, ekonomiko eta pertsonalerako aukerak sortzeko gai dena. Horretarako, langile guztiei eta, oro har, herritarrei honako balio hauek betetzeko eta helarazteko konpromisoa hartzen du:

- Zintzotasuna eta ardura jokabide kolektiboaren bereizketa nagusi gisa.
- Erantzukizuna, integritatea eta adimena, baliabide publikoak administratzerakoan.
- Udalerriko giza kapitalean, Udaleko profesionalen gaitasunetan eta herritar guztien gaitasunetan oinarritutako gobernagarritasuna.
- Kohesioa eta bizikidetzaren hirian, garapenerako eta aurrerabiderako funtsezko faktore gisa.

Hori dela eta, Udal honek arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin duen konpromisoa adierazi nahi du, bai eta integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzekin bat egiten duela ere; horrela, Udalarekin harremanetan dauden eragile guztiek iruzurraren eta ustelkeriaren aurkakotzat hartuko dute beren jarduerara, edozein modutan.

Zuzendaritza-taldeko kide guztiek hartzen eta partekatzen dute konpromiso hori, tokiko sektore publikoko agintarien eta kargudunen gobernu onaren kodearekin bat etorritik (VI. eranskina).

Halaber, enplegatu publikoek konpromisoa hartzen dute, Jokabidearen Kode Etikoan (V. eranskina) ezarritakoaren arabera, esleitura dituzten zereginak arduraz betetzeko eta interes orokorrak zaintzeko, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez, objektibotasunaren, integritatearen, neutraltasunaren, erantzukizunaren, inpartzialtasunaren, konfidentzialtasunaren, zerbitzu publikoari eskainitako dedikazioaren, gardentasunaren, eredugarritasunaren, austeritatearen, irisgarritasunaren, eraginkortasunaren, zintzotasunaren, kultura eta ingurunearen sustapenaren, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzearren printzipioekin bat etorritik, baita aipatutako Kodea inspiratzen duten eta jarraian adierazten diren printzipioekin ere:

Toki Erakunde honek iruzurrezko jarduerari adorea kentzen dien kultura bat sustatzen du, jarduerara horiei aurrea hartzea eta antzematea errazten duena, eta kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorren garapena sustatuz. Hala, besteak beste, Udalak Iruzurraren Aurkako Plana eta plan horretan jasotako prozedurak eta neurriak onartzen ditu ekitaldi honetan bertan, balizko interes-gatazkak edo balizko iruzur-egoerak saihesteko eta, hala badagokio, zuzentzeko.

Kontrol- eta jarraipen-eginkizunak Iruzurraren Aurkako Batzordeari dagozkio, eta korporazioko kide guztien, enplegatu publikoen eta Udaleko langileen



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE
DE ARANGUREN

 Plan de Recuperación
Transformación
y Resiliencia



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

laguntza izango du. Prozesuetako arduradun eta kudeatzaileen lankidetzaren erabileraren bidez, dagozkien erantzukizun-arloen barruan barne-kontrolerako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala ezartzen direla bermatzeko.

Azken batean, iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, Udalak zero tolerantziako politika bat hartu du, eta kontrol-sistema sendo bat ezarri du, bereziki, iruzurrak prebenitzeko eta, ahal den neurrian, antzemateko eta, halakorik gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.